



TXOSTENA GIZONDUZ EKIMENA

2007-2010 Epealdia

AURKEZPENA



Azken urteotan aurrerapen ukaezinak izan badira ere, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunek bere horretan jarraitzen dutela azaltzen digute estatistikek (lan merkatuari, partaidetza soziopolitikoari, pobrezari, lan erreproduktiboaren banaketari, emakumeen kontrako indarkeriari eta abarri buruzkoek).

Emakumeak ahalduntzea funtsezko eta lehentasunezko estrategia da gizon eta emakumeen arteko berdintasunean aurreratzeko; hala, emakumeek boterea lortu ahal izango dute, eta autonomia osoa izanik beren banakotasuna gauzatu dezaketen pertsona bihurtu ahal izango dira.

Hala ere, berdintasuna lortzeko, emakumeak ahalduntzea ez ezik, honako hau ere behar da: ezberdintasunen oinarri den maskulinitate eredu tradizional eta nagusia zalantzan jartzea ahalbidetuko duten formula eta espazioak sortzea, batzuen zein besteen garatzeko aukerak handitzea ahalbidetuko duen berdintasunezko gizarte justuagoa lortzeko konpromiso aktiboa hartuko duten gero eta gizon gehiago egotea lortzeko.

Testuinguru horretan aurkeztu zen Gizonduz 2007ko azaroan. Gizonduz ekimena Emakundek bultzatutako ekimen aitzindaria da eta gizonak gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde kontzientziatzea eta konprometitzea du helburu.

Hasieran, ekimena 2007ko azarotik 2009ko abendura arte sortu zen. Hala eta guztiz ere, Gizonduz-en lehen bi urteek izandako balorazio onaren ondorioz, Emakundek ekimenarekin jarraitzea erabaki zuen.

Dokumentu honen helburua da Gizonduz-etik egindako lanaren eta izandako lorpenen berri ematea, 2007ko azaroan hasi zenetik 2010eko abendura arte interesa duen orok ekimen hau hurbiletik ezagutu ahal izan dezan. Ekimena, gaztea den arren, oinarrizko erreferente bihurtu da, gizonezkoak berdintasunaren alde inplikatzearen aldeko lanean, gure erkidegoko eta kanpoko pertsona eta erakunde publiko zein pribatu askorentzat.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko martxoaren 28an

María Silvestre Cabrera

Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria

1. ¿Zer da Gizonduz?	5
2. ¿Zergatik planteatu da gizonduz?	5
2.1. Gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunek bere horretan diraute	5
2.2. Gizonek gutxi parte hartzen dute etxeko lanetan eta berdintasunaren aldeko jardueretan	5
2.3. Ez dago berdintasunik gizonak inplikatzeko ez badira	6
2.4. Berdintasuna lortzeak pertsona guztiei eragiten die, gizoni eta emakumeei, eta denentzako da mesedegarria	6
2.5. Berdintasuna behar estrategikoa da herrietako gizaki, gizarte eta ekonomien garapenerako	7
2.6. Badaude, gainera, aldeko baldintzak	7
3. ¿Zertan datza Gizonduz?	8
4. ¿Zer helburu eta neurri planteatzen ditu Gizonduzek?	8
4.1. 1. helburua: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde kontzientziatutako gizonen kopurua handitzea	8
4.2. 2. helburua: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan prestatuak dauden gizonen kopurua handitzea	9
4.3. 3. helburua: Gizonek etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzukidetasuna handitzea	10
5. ¿Zeintzuk izan dira sostengu eta bultzada egiturak?	10
5.1. Jarraipen Batzordea	10
5.2. Idazkaritza Teknikoa	11
6. ¿Zein jarduera egin dira?	11
6.1. Maskulinitateari eta eguneroko bizitzari buruzko nazioarteko bilera	11
6.2. Berdintasunak gizonago egiten zaitu» kanpaina	12
6.3. Berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako euskal gizonen Karta	12
6.4. Gizonduz bizkar-zorroa	16
6.5. Gizonduz ekimenaren webgunea	17
6.5.1. Bloga	17
6.5.2. Gizonduz ekimenaren informazioa lortzea	18
6.5.3. Nabarmenduak	18
6.5.4. Elkarriketak	19
6.5.5. Dokumentazioa	19
6.5.6. Estekak	19
6.5.7. Bibliografia	19
6.5.8. Berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako euskal gizonen Kartari atxikimenduak	19
6.5.9. Gizonduz bizkar-zorroa	20

6.5.10. Gizonduz TB	20
6.5.11. Facebook	20
6.5.12. Youtube	20
6.6. Gizonduz egunkaria	21
6.7. Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako gizonen ekitaldia	22
6.8. Prestakuntza eta sentsibilizazio programa	22
6.8.1. Aurrez aurreko ikastaroak	23
6.8.2. Internet bidezko ikastaroak	26
a) On line sentsibilizazioa	26
b) On line prestakuntza	28
6.9. Gizonen artean berdintasunari buruzko prestakuntza eta sentsibilizazio ekintzak zabaltzea	30
6.10. Berdintasunaren aldeko gizonen elkarreentzako diru-laguntzak	30
6.11. Aholkularitza	31
6.12. Parte-hartzea sentsibilizazio jardueretan eta hedabideetan	31
7. ¿Zer balorazio egiten da ekimenaren garapenaz?	33
7.1. Espero ziren emaitzak guztiz lortu dira edo gaintu ere egin dira	35
7.2. Espero ziren emaitzak ez dira guztiz lortu, baina hasierako egoera nabarmen hobetu da	35
7.3. Espero diren emaitzak, zeintzuen inguruan ez dugun informaziorik ekimenaren indarraldia amaitu ondoren	36

1. ZER DA GIZONDUZ?

Gizonduz gizonak sexuen arteko berdintasunaren alde kontzientziatzeko eta beren parte-hartzea eta inplikazioa bultzatzeko Eusko Jaurlaritzaren ekimen aitzindaria da eta Emakundek-Emakumearen Euskal Erakundeak sustatzen du.

Gizonduz terminoaren bitartez ideia hau transmititu nahi da: berdintasunak pertsona hobeto egiten gaitu eta, ondorioz, gizonak gizonduz egiten gaitu; izan ere, emakumeen eta gizonen gaitasunen erabateko garapena ahalbidetu eta haien bizitza horizontea handitzen du.

2. ¿ZERGATIK JARRI DUGU ABIAN GIZONDUZ?

Ekimen hau abiaraztearen arrazoiak ondorengo hauek dira:

2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO DESBERDINTASUNEK DIRAUTE

Emakumeek eta gizonak bete izan ohi dituzten roletan aldaketa handiak ari dira gertatzen. Emakumeek lan-merkatuan daukaten partaidetza handiagoa, hezkuntzako maila guztietan egoteko aukera, prestakuntza eta kulturara sarbide handiagoa izatea, eta, hein txikiago batean, erabakiak hartzen diren eremuetara sarbide handiagoa izatea, bada, horiek guztiak emakumeen eta gizonen berdintasunerako bidean aurrera egin ahal izateko aldaketa onuragarriak ari dira eragiten gizartean.

Haatik, lan-merkatuari, partaidetza politikoari, etxeko lanak egiteari, pobreziari, emakumeen aurkako bortizkeriari eta abarri buruzko datuek oraindik ere erakusten dute desberdintasuna dagoela gizonak eta emakumeak gizarte honetan betetzen duten lekuan. Desberdintasun horren jatorria, hain zuzen, sexuaren arabera jokoera-estereotipo eta -eredu soziokultural batzuk dira, funtsean, emakumei etxeko eremuaren ardura eta gizonari eremu publikoaren ardura izendatzen baitiete, eta hori, gainera, balorazio eta aitortze ekonomiko eta sozial oso ezberdina eginez.

2.2. GIZONEK GUTXI PARTE HARTZEN DUTE ETXEKO LANEAN ETA BERDINTASUNAREN ALDEKO EKINTZETAN

Gero ikusiko dugunez, teorian gizon gehienak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde ageri diren arren, praktikan oraindik ez da behar adina inplikazio lortu aipatutako berdintasuna lortzeko. Hala ondoriozta daiteke gizonak emakumeekin alderatuta gaiaren inguruko sentikortze- eta trebatze-jardueretan eta etxeko lanen eta pertsonen zaintza-lanen esparruan izandako parte-hartze eskasetik.

Izan ere, Gizonduz ekimena abiarazi zenean Autonomia Erkidegoan berdintasunaren esparruko sentikortze- eta trebakuntza-jardueretan parte hartzeari buruzko datuek hauek ziren:

- 2007an berdintasunerako Foroaren azken edizioan parte hartu zuten pertsonen %9a osatzen zuten gizonak. Foroa Autonomia Erkidegoan sentikortze-jarduera gehien biltzen dituen ekimena da.

- 2006an eta 2007an HAEEk euskal administrazio publikoetako langileen trebakuntzaren esparruan egindako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruko ikastaroetan parte hartu zuten ikasleen % 15a bakarrik ziren gizonezkoak.

- Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterraren eta Deustuko Unibertsitateak antolatutako Emakumeen Kontrako Indarkerian Esku Hartzeko Espezializazio Masterraren ikasleen % 8a ziren gizonezkoak.

Bestalde, emakumeen eta gizonen etxeko lanen, zaintzaren eta pertsonak zaintzeko erabilitako baimenen, eszedentzien eta lanaldi-murrizketen banaketari buruzko estatistikei dagokienez, sexuen arabera aldeak nabarmenak dira. Hauek dira Gizonduz ekimena abiarazi zeneko datuak:

- Gizonek, EAEn, ordu bat eta 32 minutu ematen zituzten, batez beste, etxeko lanak egiten eta ordu bat eta 22 minutu pertsonak zaintzen, eta emakumeek, aldiz, 3 ordu eta 50 minutu eta ordu bat eta 59 minutu, hurrenez hurren. Hauek guztiak Eustatek 2003 urteari buruz emandako datuak dira.

- Eusko Jaurlaritzak 2006an pertsonak zaintzeko lanaldia murrizteko eta eszedentzia hartzeko emandako laguntzen onuradunen %6,1 osatzen dute gizonek.

- Gizonen %3,5ak bakarrik partekatu zuen bere bikotearekin amatasun/aitatasun-baimena 2006 urtean.

2.3. GIZONEN INPLIKAZIORIK GABE BERDINTASUNA EZ DA POSIBLE

Emakumeek lan-merkatuan nabarmenki txertatzea; hezkuntzako maila guztietan parte hartzea; prestakuntzan, kulturen eta erabakiak hartzen diren eremuetara sarbide handiagoa izatea..., horiek guztiak justuago eta berdintasun maila handiagoa izango duen gizarte bat lortzeko bidean aurrera egin ahal izateko aldaketa onuragarriak ari dira eragiten. Dena den, emakumeek gizartean duten paperean aldaketa garrantzitsuak gertatzen ari diren bitartean, eta tradizionalki maskulinitzat joak izan diren eremuetan gero eta gehiago parte hartzen duten bitartean, gizonen partetik ez da gertatzen ari esku hartze nabarmenik etxeko lanei dagokienez, ezta tradizionalki femeninitzat joak izan diren gainontzeko funtzio eta balioei dagokienez. Baina ez da nahikoa emakumeen aldaketa benetako berdintasuna lortzeko, eta haiek ez dira berdintasun maila handiagoa izango duen gizartea lortzeko interes duten bakarrak.

2.4. BERDINTASUNA LORTZEAK PERTSONA GUZTIEKIN ZERIKUSIA DU, GIZONEKIN ZEIN EMAKUMEEKIN, ETA DENEI ONURAK EKAR DIEZAZKIEKE

Gainera, bizikidetzaren berriak ez die horiei bakarrik mesede egiten, gizarte osoari baizik, gizoni barne. Izan ere, gaur egungo gizarte-sistema patriarkalak gizoni talde gisa pribilegioak ematen dizkien arren (diru-sarrera, botere-maila eta esparru publikoko autoritate-maila handiagoak, eta nagusiki emakumeek egindako etxeko lanen eta zaintza-lanen onurak jasotzea, besteak beste), sistemak zereginak eta esperantzak sexuen arabera modu zurrunean bereizteak kostuak ere eragiten dizkie gizoni. Gizonen bizi-itxaropena txikiagoa da emakumeena baino, eta joera handiagoa izaten dute droga-mendekotasuna, zirkulazio-istripuak, lan-istripu larriak, indarkeriazko heriotza eta kartzelaratzera jasateko. Gizonek, gainera, familiak ekonomiaren aldetik mantentzeko sozializatu dituzten aldetik, presio handiagoa jasaten dute lanaldia luzatzeko. Hala, nagusiki produkzioaren munduari eskaintzen diote beren bizi-bizitza, eta ez dituzte bestelako zenbait potentzialtasun eta gaitasun garatzen, ugalketaren eta afektuen munduarekin erlazionatutakoak

nagusiki. Hautemangarriak dira, halaber, nagusi den eginkizun sozialetik urruntzen diren eta tradizionalki "femeninotzat" hartu izan diren portaerak eta zereginak publikoki hartzera ausartzen diren gizonen jasandako onarpenik eza eta, zenbaitetan, gutxiespen soziala.

Azken finean, gure gizarteak, emakumeak baztertzeaz gain, atsekabea eragiten die hala emakumeei nola gizoni. Hori horrela izanik, mende honetako erronka eredu sozial berri demokratikoago, justuago eta berdintasunezkoagoa eraikitzea izan beharko litzateke. Hala, pertsona guztiak eremu publikoan zein pribatuan beren gaitasunak guztiak garatzeko eta erabakiak sexuaren arabera tradiziozko zereginak eta estereotipoek ezarritako mugarik gabe hartzeko gai izan beharko lirateke, eta gizarteak berdin aintzatetsi, baloratu eta sustatu beharko lituzke emakumeen eta gizonen jarrerak, itxaropenak eta beharrak. Horretarako, funtsezkoa da gero eta gizon gehiago honako ekintza hauek aurrera eramateko prest izatea: maskulinitasunaren tradiziozko eredu zalantzan jartzeko, sistema patriarkalak ekar diezazkiekeen pribilegioei uko egiteko, beren buruak gaizki ulertutako maskulinitasunaren zamatik aske uzteko eta pertsona askeagoak eta libreagoak osatutako gizarte berria lortzeko emakumeekin batera aktiboki lan egiteko.

2.5. BERDINTASUNA BEHARRIZAN ESTRATEGIKOA DA HERRIEN GIZA GARAPENERAKO ETA HAIEN GARAPEN SOZIAL ETA EKONOMIKORAKO

Giza eskubidea izateaz gain, emakumeen eta gizonen berdintasuna baldintza estrategikoa ere bada demokrazian sakontzeko eta justuago, kohesionatuago eta gizakien, gizartearen eta ekonomiaren aldetik garatuago izango den euskal gizarte berria eraikitzeko.

2.6. BADAUDE, GAINERA, ALDEKO BALDINTZAK

Gaiaren gainean nazio arteko erakundeek egin dituzten adierazpenei jarraiki, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak, marko juridiko egoki bat egituratzen dute, emakumeekin batera, gizarte justuago eta berdintasunezkoago baten alde gizonen konpromiso aktiboa lortzera beren beregi zuzenduta dauden ekimenak herri administrazioek abian jar ditzaten.

Bestalde, badira hainbat eta hainbat urte herri erakundeek emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egiten hasi zirenetik. Berdintasun politketan haiek duten eskarmentua Euskadiko Autonomia Erkidegoa leku faboragarrian ipintzen dute Gizonduz-en moduko ekimen berritzaileak garatzeko.

Gainera, ugariak dira teoriaren ikuspegian sexuen arteko berdintasunaren alde agertzen diren gizonak. Alde horretatik, besteak beste honako datu hauek erakusten ditu Eusko Jaurlaritzako Lehendakariatzako Soziologia Azterketetarako Kabineteak 2004an egindako EAeko biztanleriaren iritziak gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruz ikerlanak:

- Gizonen %77k (eta emakumeen %86k) nahikoa garrantzi edo garrantzi handia ematen dio emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari.

- Gizonen %79k (eta emakumeen %88k) aipatutako berdintasunaren aldeko neurri gehiago hartu beharko liratekeela uste du.

- Gizon gehienek ustez, honako jarrera hauek hartzea eraginkorra da sexuen arteko berdintasun eza murrizteko edo desagerrarazteko: etxeko lanak partekatzea eta, hala, seme-alabei

etsenplu ematea (%94); emakumeak beren parekotzat hartzea eta haien nahiak, iritziak, lanak etab. aintzat hartzea (%93); emakumeenganako errespetu eza adierazten duten kideen eta lagunen portaeren aurrean kritikiko agertzea (% 92); berdintasunak gizonentzat ere onurak dituela onartzea (%88); eta emakumeen eskubideak aktiboki defendatzea (%89).

Beraz, berdintasunaren aldeko diskurtsoak bere isla eguneroko praktikan izan dezan sustatu beharra dago.

3. ZERTAN DATZA GIZONDUZ?

Sentikortzearen, prestakuntzaren eta etxeko lanetan erantzukidetasuna lortzearen eremuan neurri multzoa osatzen duen ekimena da Gizonduz. Gizonek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez parte-hartze eta inplikazio handiagoa izan dezaten, eta aipatutako helburua lortzeko efektu biderkatzailea izango duen nahikoa masa kritikoa sortzeko. Aipatutako helburuak eta neurriak ondorengo bi ideietan oinarrituta: batetik, sentikortasuna eta trebakuntza pentsamoldea eta portaera aldatzeko giltza direla, eta, bestetik, gizonek sexuen arteko berdintasunaren aldeko kontzientziak eta konpromisoa handitzeko berariazko neurriak proposatzeak portaera-eredu soziokulturalen aldaketaren esparruan aurrerapauso handiagoa ematea erraztuko duela. Aldaketa ezinbestekoa da emakumeen egiturazko berdintasun ezeko egoeraren prozesuak edo faktoreak zuzentzeko, eta gizaki gisa garatzeko dauzkaten aukerak indartzeko (bai emakumeenak, bai gizonenak).

Ekimen hori emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko proposamen orokorrean eta integralean txertatuta dago. Planteamendua Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean dago jasota, bai eta EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Planetan ere. Bere lehentasunezko helburuak emakumeen autonomia pertsonala bultzatzea eta haien egoera soziala, ekonomikoa eta politikoa indartzea dira; helburu horiek erdiesteko, ezinbestekoak dira gizonen konpromisoa indartzeko neurriak, bertara bideratutako baliabideak kaltetu gabe.

4. ZEINTZUK DIRA GIZONDUZ EKIMENAREN HELBURUAK ETA EKINTZAK?

Gizonduz ekimena. “Berdintasunak gizonago egiten zaitu” agirian jasotzen dira Gizonduz ekimenaren hasiera bateko helburuak eta ekintzak. Hain zuzen ere, ondorengo hauek dira:

4.1. 1. HELBURUA: EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ALDE SENTIKORTUTAKO GIZONEN KOPURUA HANDITZEA

Neurriak:

- 1.1. Sexuen arteko berdintasunaren esparruan gizonen berariaz zuzendutako kontzientzia-kanpainak egitea. Kanpainak gizonen ekarpenen garrantziari eta berdintasunak gizonen ekarpenak onurei buruzkoak izango dira, eta gizonen aurkako indarkeriari dagokionez jarrera aktiboa izatea erraztea ere izango dute helburu.
- 1.2. Maskulinitasunari eta eguneroko bizitzari buruzko nazioarteko batzarra antolatzea, Sare Topaketen esparruan.
- 1.3. Maskulinitasuna Berdintasunerako Naro Foroaren lehentasunezko eduki tematikoei erantzea.
- 1.4. Berdintasunaren aldeko gizonen taldeak eta tailerrak sustatzeko diru-laguntzak ematea.
- 1.5. Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako euskal gizonen karta egitea, zabalpena ematea eta gizon gehiago hari atxikitzea.
- 1.6. Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako euskal gizonen kartaren edukiak lantzea, eskolatan, gazteen elkarteetan, kirol erakundetan eta gizon gazteek eta umeez arduratzen diren taldeetan. Hori guztia, haiengandik berdintasunaren aldeko jarrera positiboak lortze aldera.
- 1.7. *www.euskadi.net* web gunean gizonen eta sexuen arteko berdintasunari buruzko atari espezializatua sortzea.
- 1.8. Gizonentzako berariazko sentikortze-programa martxan jartzea, maskulinitasunarekin eta eguneroko bizitzarekin erlazionaturako gaiak (osasuna eta zainketak, erantzukidetasuna, aitatasuna, sexualitatea, indarkeria eta mikromatxismoak, e.a.) modu errazean eta dibulgetzailean lantzeko.
- 1.9. Aitei, lehen seme-alabak jaiotzen direnean, eskuliburu bat eta bestelako sentikortze-materialak ematea. Material horiek osatuko duten materialek zaintzari eta aitatasunari buruzko zenbait alderdi praktikori buruzko jarraibideak emango dituzte, eta, halaber, aitaren irudiak balore ez-sexistak transmititzeko garaian duen eraginari buruzko gogoeta egiteko gakoak emango dituzte.
- 1.10. Lehendakaria buru duen ekitaldi publiko bat antolatzea, Gizonduz ekimenean nolabaiteko parte-hartzea izan duten pertsonen eskerrak emateko..

4.2. 2. HELBURUA: EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ESPARRUAN TREBAKUNTZA DUTEN GIZONEN KOPURUA HANDITZEA

Neurriak:

- 2.1. Ekintza positiboak aurrera eramatea, gizonen erraztasun handiagoa izan dezaten HAEK euskal administrazio publikoetako langileentzako antolatutako trebakuntza-ikastaroetan parte hartzeko.
- 2.2. Ekintza positiboak aurrera eramatea, gizonen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan espezializatutako masterrak edo bestelako unibertsitate-graduondokoak eskuragarri izan ditzaten.
- 2.3. Gizonentzat emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko trebakuntza-programa bat martxan jartzea, besteak beste ondorengo gaiak landuko dituenak: genero harremanak eta maskulinitasun berriak, eta maskulinitasun tradizionalak dakartzan ondorioak osasunean, zaintzan, sexualitatean, indarkerian eta lege-hausturetan, etxeko lanean erantzukidetasunari dagokionez eta arriskua hartzearekin lotutako jarrerari dagokienez.

2.4. Gizonduz ekimenaren, bere emaitzen eta bertan sortutako dibulgazio- eta trebakuntza-materialen berri ematen duen dokumentu bat egitea eta zabaltzea.

4.3. 3. HELBURUA: GIZONEK ETXEKO LANETAN ETA PERTSONEN ZAINTZAN DUTEN ERANTZUNKIDETASUNA HANDITZEA

Neurriak:

3.1. Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere organismo autonomoetako langileei erditzeko prestakuntza-ikastaroetara bertaratzeko baimena ematea (amarenarekin bateragarria).

3.2. Gizonduz ekimeneko sentikortze- eta trebakuntza-programetan parte hartu duten gizonei (Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean edota bere erakunde autonomoetan lan egiten dutenei) aitatasun-baimena hedatzea.

3.3. Erditze-baimena bi edota lau asterako eskatu duten Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere organismo autonomoetako gizonetzko langileei astebetetz edota bi astez hedatzea, hurrenez hurren.

3.4. Gizonduz ekimeneko sentikortze- eta trebakuntza-programetan parte hartu duten gizonei (Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan lan egiten dutenei) gaixotasun kronikoa edota mugikortasun-arazoak dituzten senideak zaintzeko baime-naren ordu-kreditua hedatzea.

3.5. Aurreko ataletan aipatutako neurriak edota gizonak etxeko lanetan eta zaintza-lanetan erantzukide izatera bideratutako neurriak gainerako erakunde publikoetan eta sektore pribatuan ezartzea sustatzea.

5. ZEINTZUK IZAN DIRA LAGUNTZA ETA SUSTAPEN EGITURAK?

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak garatu du batez ere Gizonduz ekimenaren disei-nua, sustapena, gauzatzea, jarraipena eta ebaluazioa. Horretarako, Emakundek bi egitura izan ditu laguntzaile gisa:

5.1. JARRAIPEN BATZORDEA

Ekimenean zuzenkiago inplikaturako erakundeen ordezkariak izan dira batzorde honen kide:

- Lehendakaritza
- Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Saila
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea
- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea

Bere funtzioak honakoak izan dira, funtsean: ekimena gizarteratzea eta beste erakunde eta sekto-reen babesa eta lankidetzatza bilatzea, ekimenaren martxaren aldizkako jarraipena egitea eta ekime-

naren helburuak betetzeko egokitzapenak edo aldaketak proposatzea.

2009ko maiatzetik aurrera Jarraipen Batzordearen eginkizunak Emakunde-Emakumearen Euskal Institutoak hartu zituen bere gain.

5.2. IDAZKARITZA TEKNIKOA

Ekimena garatzeko Emakundek laguntza tekniko espezializatua izan du. Horretarako Aizak, SL, enpresa kontratatu zen. Berdintasunaren eta maskulinitatearen alorrean adituak eta gizonekin berdintasunaren alde lan egin izan duten pertsonak eman dute laguntza hori.

6. ZER JARDUERA EGIN DIRA?

«Berdintasunak gizonago egiten zaitu» Gizonduz ekimenaren dokumentuan jasotzen den lan-plana-
ren arabera, 2007-2010¹ aldian ondorengo jarduera hauek burutu ziren ekimenaren testuinguruan.

6.1 MASKULINITEARI ETA EGUNEROKO BIZITZARI BURUZKO NAZIOARTEKO BILERA

1.2 neurria gauzatze aldera egindako lehenengo jarduera, Donostian, 2007ko azaroaren 5ean eta 6an egin zen Maskulinitateari eta eguneroko bizitzari buruzko nazioarteko bilera izan zen. Bertan, hainbat herrialdeetako adituak egon ziren, eta 400 bat lagun bildu ziren. Gai hauek jorratu ziren, beste batzuen artean:

- Maskulinitatearen eraikitzea eta genero-harremanak
- Maskulinitatearen arriskuak
- Gizonak eta zaintza.
- Gizonak, ereduak eta arriskuzko jokabideak
- Gizonezkoen indarkeriak
- Gizonak berdintasunaren erronkaren aurrean



1. Hasieran, ekimena 2007ko azarotik 2009ko abendura arte sortu zen. Hala eta guztiz ere, Gizonduz-en lehen bi urteek izan duten batorazio onaren ondorioz, Emakundek ekimenarekin jarraitzea erabaki zuen. Dokumentu honen helburua da Gizonduz-etik egindako lanaren eta izandako lorpenen berri ematea, 2007ko azaroan hasi zenetik 2010eko abendura arte.

6.2. «BERDINTASUNAK GIZONAGO EGITEN ZAITU» KANPAINA

1.1. neurria gauzatze aldera, «Berdintasunak gizonago egiten zaitu» sentsibilizazio kanpaina garatu zen 2007ko azaroan. Kanpaina gizonen zuzenduta zegoen eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde beren konpromiso aktiboa sustatzea zuen helburu. Kanpaina ezagutzera emateko publizitate-iragarkia emititu zen Euskal Telebistaren bi kateetan. Horretan, erantzunkidetasuna, zaintza, indarkeriarik eza, errespetua, aintzatespena eta lankidetzak gisako jokabideak balioan jartzen ziren.

6.3. BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURKAKO EUSKAL GIZONEN KARTA

1.6. neurria gauzatze aldera, Berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako euskal gizonen Karta egin zen 2008an. Berdintasunaren aldeko konpromiso pertsonala lortu nahi zen, eta, horretarako, indibidualki sinatu behar zen Kartaren testua.

Ez zen sinadura-bilketa masiboa egin nahi; aitzitik, sinatzen zutenek eredu maskulino nagusiei buruz hausnar zezaten eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde apustu egin zezaten nahi zen. Horrexegatik, kartaren edukiek gizarteko arazo orokorrei ez ezik, eguneroko jarraira pertsonalei ere heltzen diete.

Kartaren edukiak ardatz nagusi hauen inguruan garatzen dira: gizon eta emakumeen arteko berdintasuna egoera bidegabe eta diskriminatzaile baten aurreko justizia-printzipio gisa, gizonen erlazioa beren buruaren eta gainerakoen zaintzarekin, aukera eta sexu-joera aniztasunaren aldeko apustua egitea eta emakumeen kontrako indarkeria salatzea.

Kartaren edukiaren lehenengo zirriborroa egiteko, Xerezko edo Gasteizko gizon-taldeek edota Ahige gizon-taldearen berdintasunaren aldeko konpromiso-dokumentuak hartu ziren kontuan, baita berdintasunaren eta maskulinitatearen teorikoen (esaterako, Michael Kauffman) beste ekarpen batzuk ere.

Karta idazteko prozesuan erakundeetako ordezkarien, mugimendu feministako emakumeen, berdintasunaren aldeko gizon-talde sarearen eta indibidualki edo ospe profesionalagatik garrantzitsuak diren beste pertsona batzuen laguntza izan genuen.

Euskal gizonen eskutitza, berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra

Eskutitz hau sinatzen dugun gizonok badakigu gure gizartean ez dagoela berdintasunik emakumeen eta gizonen artean, ez harremanetan eta ez botere-banaketan, eta emakumeak gizonen menpe daudela. Ondorioz, gizonok hainbat pribilegio dauzkagu: aisialdirako denbora gehiago daukagu; esparru publikoan, politikan nahiz ekonomian botere handiagoa dugu; eta emakumeen etxeko lanaz eta zaintzaz gozatzen dugu. Aitzitik, gizartea antolatzekeko modu honek modu negatiboan eragiten digu, eta gure nortasuna eraikitzekeo gizartean eredu izan den tradiziozko gizonen eredu matxistak ez gaitu asetzen, eta gainera, gure izaera garatzeko prozesua baldintzatzen du.

Bidezkoa da egoera aldatzea, emakumeen eskubidea delako, eta gizarte osoaren onerako izango delako, egoera aldatzea onuragarria izango baita gizonentzat ere.

Horregatik, eta sexismoak eragiten dizkigun kalteak gainditzeko asmoz, berdintasuna oinarri duen gizartea eraikitzeko konpromisoa hartuko dugu, banaka nahiz taldean, emakumeek eta gizonak eskubide eta aukera berberak izan ditzagun, eta batzuen eta besteen ekarpenak eta beharrak modu berean balora daitezten. Horretarako **konpromiso hauek hartuko ditugu:**

- Emakumeek sexismoaren aurka egindako aldarrikapenekin bat egingo dugu eta bazterketa sexisten aurka egiten duten borroka oro babestuko dugu, eta bereziki, indarkeria matxista gaitzetsiko. Gainera, jendaurrean eta modu aktiboan gaitzetsiko ditugu halako bazterketa-jarrerak eta ez ditugu onartuko geure inguruan.

- Egoera, esperientzia eta jarrera guztiak haintzat hartuta, berdintasunik gabeko gizarte honi eusten dioten eguneroko balio eta jarrerak berraztertuko ditugu, eta beste gizon batzuei laguntzen saiatuko gara, aldaketa pertsonalen eta gizarte-aldaketen bide honekin bat egin dezaten.

- Geure burua eta besteena zaintzeaz arduratuko gara, pertsonen osasunaren eta segurtasunaren aurkako arrisku-jarrerak bultzatu ordez.

- Etxeko lanak eta familiakoak zaintzeko lanak geuretzat hartuko ditugu, baita gure izaera eraikitzeko bide gisa ere, eta bereziki, zaintzeko baimen, eszedentzia eta lanaldi murriketez gozatuko dugu.

- Askotariko sexualitatea lortzearen alde, egingo dugu, mitorik gabe, konparaziorik egin gabe eta ezer ezarri gabe, elkarrekin gozatzuz eta elkarri plazera emanez. Sexualitate librearen eta sexu-aukera zein sexu-orientazio librearen aurkako jarrera ororen aurka egingo dugu.

- Geure nortasuna libreki eraikitzen saiatuko gara, rola eta estereotipoak alde batera utzita, geure emozioak eta sentimenduak osorik garatzeko.

- Indarkeria ez dugu arazoak konpontzeko zilegizko tresna gisa hartuko. Baztertu egingo dugu eta bide baketsuak eta elkarrizketa erabiliko ditugu egoera korapilatsuak konpontzeko.

- Euskal gizonon konpromisoa berdintasunaren aldeko apustu sendoa da. Beharrezkoa da herritar libre, autonomo, zuzen eta zoriontsuagoen gizartea eraikitzeko.

Jendaurrean aurkezteko kartaren sinadura-ekitaldia Ajuria Enean egin zen, 2008ko apirilaren 23an. Ekitaldiaren buru lehendakari ohia izan zen eta 27 gizonak (berdintasunaren aldeko gizontaldeetakoak, Emakunderekin Gizonduz ekimenean edo beste jarduera batzuetan parte hartutakoak eta gizartean ezagunak diren beste batzuk) parte hartu zuten.

Honako hauek hartu zuten parte ekitaldian:

- Ander Bergara: Gizonduz ekimenaren koordinatzailea
- David Lozano: Kazetaria
- Félix Ajuria: Abeltzaina eta sindikalista
- Gaizka Ibañez de Opakua: Psikologoa eta Gizon Sareako kidea
- Haimar Zubeldia: Txirrindularia
- Ibon Arrizabalaga: Berdintasun agentea eta maskulinitate hezitzailea
- Igor González de Galdeano: Euskaltel Euskadi txirrindulari taldeko kirol-zuzendaria
- Jaime Tapia: Epalea
- Javi Nuñez: Bulegaria
- Jose Angel Cuerda: Gasteizko alkate ohia
- Jose Arriba: Ile-apaintzailea
- Josetxu Riviere: Berdintasunaren aldeko Arabako gizon-taldeko kidea eta maskulinitate hezitzailea

- Juankar Perez de Mendiguren: Ekonomista
- Julio Ibarra: Kazetaria
- Kepa Junkera: Musikaria
- Kirmen Uribe: Idazlea
- Luis Moreno: Ile-apaintzailea
- Mariano Ferrer: Kazetaria
- Mikel Otxotorena: Gizonsareako kidea eta maskulinitate hezitzailea
- Mikel Urdangarin: Abeslaria
- Patxi Perez: Aktorea
- Leopoldo Santos: Gizarte hezitzailea eta gay ekintzailea
- Porfi Hernandez: Psikiatra
- Ricardo Aristizabal: Arkitektoa
- Ritxar Bacete: Antropologoa eta Berdintasunaren aldeko Arabako gizon-taldeko kidea
- Xabier Euskitze: Bertsolaria
- Xabier Odriozola: Antropologoa



Aurkezpen publiko horren ondoren, udalei, foru aldundiei, Eusko Jaurlaritzako sailei, beste erakunde publiko batzuei, Emakundek homologatutako lankidetzak eta aholkularitza enpresei, elkargo profesionalei, politika, gizarte, sindikatu eta enpresa elkarteei eta abarri bidali zitzaizkien Karta eta beraz ahalik eta gehien zabal zezaten eta egokien irizten zirenen formulen bitartez sinadurak biltzen lagun zezaten eskatu zitzaizkien.

Halaber, kanpainari babesa emateko iragarkiak egin ziren, hala idatzizko prentsan nola irratien bidez.

Lankidetzak errazagoa izan zedin, sinadurak biltzeko hiru modu proposatu ziren: lehena, aurrez aurrekoa, karta sinatzeko Emakundek prestatutako tokietan; bigarrena, internet bidez, Gizonduzen webgunean; eta hirugarrena, erakundeek zuzenean biltzea, egoki iruditzen zitzaizkien formulen bitartez.

Sinadura bilketan, ekimena serigrafiaturik zuen karpak eta dibulgazioko materialak (kartelak, boligrafoak, Gizonduz egunkaria, begizta zuriak eta globoak) erabili ziren.

Lehenengo sinadura bilketak Gasteizko eta Bilboko jaietan egin ziren. Gasteizen Zeledonek eman zion hasiera bilketari eta Bilbon festetako pregoilariaren laguntza izan zuten. Jaietako bi ikur

horiek berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren kontrako konpromiso publikoa hartu zuten. Horiekin batera zegoen Emakunderen zuzendaria, sinadurak biltzeko kanpainaren hasiera publikoari babesa ematera joanda.

Zenbait udal eta gizarte-talde harremanetan jarri ziren Erakundearekin sinadura bilketa antolatzeko. Sinadura bilketaren ekitaldiak baliaturik, gizonek berdintasunaren alde izan dezaketen parte hartzea bistaratzeko zuten ekitaldi publikoak egin ziren. Hala, tresna garrantzitsua izan da Karta berdintasunaren alde gizartea sentsibilizatzeko eta mugiarazteko.

Sinadurak jasotzeko karpa hiru euskal teknologia-parkeetan ipini zen: Miñanon, Zamudion eta Miramonen. Ondorengo udaletxe hauetan ere eduki zen:

- Basaurin; karpa jarri zen eta udalerriko alkateak parte hartu zuen.
- Laudion; Gizonduz ekimena eta Kartaren edukiak azaltzen zituzten 7.000 egunkari banatu ziren etxeetan.
- Mungian; udalerriko agintariek gain, bertako 200 gizon inguruk parte hartu zuten sinadurak biltzeari hasiera emateko ekimenean.
- Sopelan; emakume-elkarteek sinadura bilketa sustatu zuten eta Athleticen jokalaria ohien (bestek beste, Jose Angel Iribar) laguntza izan zuten.
- Zarautzen eta Ean; udal korporazioen laguntza izan zuten.
- Lemoiz-Armintzan; Emakunderen zuzendariarekin eta eskualdeko udalerrietako zinegotziekin ekitaldia egin zen.
- Santurtzin, Ortuellan, Derion, Arrigorriagan, Abadiñon eta Gorkizen ere udaletako berdintasun arloek antolatutako hainbat ekitaldi publiko egin ziren eta sinadura bilketan udal ordezkariak parte hartu zuten.

Halaber, Alderdi Egunean, Forondako zelaietan jarri zen karpa, ekitaldiaren antolatzaileek eskatuta.

Basauriko Gabonetako parkean ere bildu ziren sinadurak, antolatzaileek eskatuta, eta BECen haurrentzako antolatzen den Gabonetako parkean 5 egunez egon zen karpa.

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguneko ekintzen artean, Arabako Foru Aldundiak ekitaldi instituzional bat antolatu zuen eta ahaldun nagusiak eta gainerako ahaldun gizonezkoek Karta sinatu zuten, Arabako Foru Aldundiko langile talde handi batekin batera.

Erakundeen alorrean nabarmendu beharra dago Legebiltzarreko kide guztiek sinatu zutela Karta 2008ko azaroaren 22an egin zen ekitaldi publikoan.

Horri guztiari esker, 2010eko amaierarako 10.230 sinadura bildu ziren, eta Gizonduz ekimenean aurreikusitako helburuetako bat bete zen.



Gainera, 1.6. neurrian aurreikusitakoaren harira, euskal gizonen Kartari buruzko edukiak landu ziren Emakunderen Nahiko programaren testuinguruan. Programa honen helburua hezkuntzaren alorrean prebentzio lana egitea da, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko. Ondorengo ardatz hauek ditu oinarri: irakasleak trebatzea, ikasleak eta familiak sentsibilizatzea eta materialak prestatzea.

Zehazki, Kartan jorratutako alderdietako batzuk eskola testuinguruan ere landu zitezten, edukietako batzuk lehen hezkuntzako bigarren zikloari dagokion «Bizikidetzaren berdintasunez» 6. unitate didaktikoaren ikasle eta familia koadernoan sartu ziren, egokitu ondoren.

6.4. GIZONDUZ BIZKAR-ZORROA

1.9. neurria betetze aldera, aitatasuna nabarmentzeko helburua duten sentsibilizazio materialak prestatu ziren; izan ere, aro jakin horretan aldaketa garrantzitsuak gertatzen dira gizon askorengan, eta, horregatik, gizonen berdintasunezko jarrerak har ditzaten proposatzeko unerik egokiena da.

Bizkar-zorroa hautatu zen euskarri gisa berdintasunezko aitatasunak «karga gehiago hartzea», alegia, pertsonak zaintzeko lanak gehiago banatzea eskatzen duela irudikatzeko. Horrela, emakumea etxeko lanetatik eta zaintzatik «arintzea» bilatzen da. Oraindik ere emakumeak dira lan horiek gehien egiten dizutenak, eta horrek eragin negatiboa du beren ibilbide profesionalean, eremu publikoan duten parte hartzean, aisian eta osasunean, eta, ondorioz, beren lan eskubideak eta gizarte babesa murriztu egiten dira. Gainera, berdintasuna bidean aurrera joatea dela irudikatu nahi da, ez dela ekintza isolatu bakar batekin lortzen, baizik eta egunero finkatuz joan behar den bizimodu baten aldeko apustua izan behar dela ezagutzera emateko balio du bizkar-zorroak.

Honako hauek dira Gizonduz bizkar-zorroak biltzen dituen materialak:

- Aitzol Aramaio ondarroar zine zuzendariak zuzendutako **Aitak** dokumentala. Dokumental horretan hamaika aitak beraien barreneko alderdi ezezagunak ematen dituzte ezagutzera: afektuen eta zaintzaren mundua, eta aitatasunaren esperientziak sortzen dituen zalantzak, beldurrak, pozak eta kontraesanak.
- Aitak seme-alabei irakurtzeko ipuina. **Aitarek sekretua** du izena eta aita-semeen arteko harremanaz hitz egiten du. Karmele Jaio idazleak idatzi du ipuina eta irudiak Alexander Jaiok egin ditu.
- **Aitak berdintasunean** izeneko berdintasunezko aitatasunari buruzko gida ilustratua. Gidak aitatasunerako bidearen lehenengo momentuei buruzko zenbait hausnarketa eta berdintasunezko aitatasun erantzunkidea sustatzen duten zenbait aholku biltzen ditu. Bi bertsio egin ziren, aita biologikoentzako bata, eta adopzio bidez aita izango direnentzako bestea.
- **Gizonak, berdintasuna eta maskulinitate berriak** gida. maskulinitatearen eraikuntza sozialari buruzko gida teorikoa da eta gizon eredu tradizionala nahiz berdintasunezko jarreretarantz gizon askorengan ematen ari diren aldaketak aztertzen ditu. Generoak gizonengan sortzen dituen arazoak ere jorratzen dira.
- **Berdinometroa**, etxeko lanak bikote-kideen artean nola banatzen diren ikusgai jartzeko eta horiek modu orekatuagoan bana daitezten egiteko «jolas» dibertigarria.
- **Autoan jartzeko eranskailuak**. Gizonen zaintzan duten rola publikoki aldarrikatzeko aukera ematen die autoan, tradizioz gizonen eremukoak izan den euskarrian.
- Eta, azkenik, **Gizonduz egunkaria**. Egunkariak Gizonduz ekimenari eta horren baitan garatzen diren jardueri buruzko informazioa ematen du.

Gizonduz bizkar-zorroa egiteko Euskadiko Kutxaren laguntza-ekonomikoa eta Osakidetzaren eta hiru foru aldundien laguntza izan dugu.

2008ko irailetik banatzen ari dira Gizonduz bizkar-zorroak EAEn aita izango direnei Osakidetzako emaginen bidez eta foru aldundietan adopzio gaiak daramatzaten atalen bidez.

EAEn urtero 20.000 haur jaiotzen direla estimatuta, 28.000 bizkar-zorro egin ziren. 2010eko amaierarako 25.000 banatu ziren.

Halaber, nabarmentzekoa da zenbait materialek (tartean Aitak dokumentala) bizkar-zorroak jaso zituzten gizonak erabiltzeaz gain, beste erabilera batzuk ere izan dituztela. Hala, adibidez, erditze-prestakuntzarako zenbait ikastarotan erabili zuten, eta eman zuten ETBn, Plentzia Telebistan eta Bizkaiko TV7n ere. Honako beste toki hauetan ere eman zen dokumentala: Madrilen, Stop Machismo Berdintasunaren aldeko Gizonen Foroak eskatuta, Berriozararren, berdintasuneko eragileek eskatuta eta Ermuan, Zipriztintzen Ermuko gizon-taldeak eskatuta.



6.5. GIZONDUZ EKIMENAREN WEBGUNEA

2008ko apirilean Gizonduz ekimenarentzako webgune zehatz bat sortu zen Eusko Jaurlaritzaren webgunean (www.euskadi.net/gizonduz). Guneak ekimenari buruzko informazio asko jasotzen du hainbat euskarritan eta ondorengo atal hauetan sailkatzen da:

6.5.1. Bloga

Gizonduz ekimenaren bloga, berriz, eztabaidak, berriak eta informazio erabilgarria proposatzeko gunea da eta herritar guztiei irekita dago, berdintasunarekin, gizonekin eta maskulinitatearekin erlazionatutako gaurkotasun gaiei buruzko iritzi, hausnarketa eta iruzkinak agertu ahal izan ditzaten. 2008ko uztailean ireki zen, eta 2010eko abendura arte 388 sarrera zenbatu dira, kategoria hauen arabera: erakundeek ekimenak, gizonetzko indarkeriak, emakumeen kontrako indarkeria, gizon-taldeak eta berdintasunaren aldeko gizonak.



6.5.2. Gizonduz ekimenaren informaziora sartzea

Gizonduz ekimenaren webguneko hasierako orriari Gizonduz ekimenaren prestakuntza programa osoa aurki daiteke. Honako hauek egin daitezke gune horretan:

- Antolatutako aurrez aurreko ikastaroetara jo eta horietarako izena eman.
- On line oinarritako sentsibilizazio-ikastarora jo eta berau egin.
- 60 orduko on line ikastarora jo eta berau egin.



6.5.3. Nabarmenduak

Atal honetan Gizonduz ekimenaren nobedadeak, azkeneko elkarrizketak, Emakunderi buruzko informazio interesgarria, laguntzei eta ikastaroei buruzko informazioa eta abar ematen dira ezagutzera.

6.5.4. Elkarrizketak

Berdintasunarekin erlazionatutako pertsonen egiten zaizkien elkarrizketak biltzen dira atal honetan. Honako hauek dira 2008-2010 aldian elkarrizketatu diren pertsonak:

- Ander Bergara: Gizonduz ekimenaren koordinatzailea
- Ritxar Bacete: Antropologoa eta Berdintasunaren aldeko Arabako gizon-taldeko kidea
- Daniel Leal: Xerezko Udaleko Berdintasun eta Osasun Ordezkaritzako Berdintasunaren aldeko Gizonen Departamentuko koordinatzailea
- Aitzol Aramaio: Zinema zuzendaria
- Mila Amurrio Velez: Soziologoa
- Kirmen Uribe Urbieto: Idazlea
- Patxi Perez Goñi: Irungo alarde mistoko kidea
- Miguel Lorente: Genero indarkeriarako Espainiako gobernuko ordezkaria
- Maria Silvestre: Emakunderen zuzendaria

6.5.5. Dokumentazioa

Atal honetan hainbat artikulua aurki daitezke. Horiek, atal hauetan sailkatzen dira:

- Maskulinitatea eraikitzea
- Genero arazoak gizonengan
- Gizonen indarkeriak
- Emakumeen aurkako indarkeria
- Gizonen zuzendutako berdintasun politikak
- Gizonak eta berdintasuna, maskulinitate berriak eta gizon-taldeak
- Gizonak feminismoaren aurrean
- Aitatasuna
- Haurrak eta gazteak
- Sexualitatea

En el apartado de documentación, también están disponibles los periódicos de la iniciativa Gizonduz en su versión digital.

6.5.6. Estekak

Atal honetan biltzen dira gizonen eta berdintasunaren gaiekin erlazionatutako intereseko webguneetako estekak (Euskadiko eta Estatuko gizon-taldeenak, erakunde eta programa publikoenak, gaian aditu direnenak eta maskulinitatei buruzko webguneenak).

6.5.7. Bibliografia

Atal honek genero eta maskulinitateen azterketaren gaiko bibliografia espezializatuko zerrenda jasotzen du, eta Emakunderen dokumentazio zentroan eskuragarri dauden liburuak zeintzuk diren adierazten du.

6.5.8. Berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako euskal gizonen Kartari atxikimenduak

Atal zehatz bat dago euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez eta bertan lor daitezke ber-

dintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako euskal gizonen Kartaren testu osoa eta horri atxikitzeko formularioa.

6.5.9. Gizonduz bizkar-zorroa

Gizonduzen webgunean Gizonduz bizkar-zorroaren material guztiak kontsulta daitezke; baita formatu digitalean deskargatu ere (Aitak dokumentala izan ezik, horren laburpena Gizonduzen Youtube Kanalean ikus daiteke).

6.5.10. Gizonduz TB

Gizonduz TBtik Youtubeko Gizonduz Kanalera joan zaitezke ekimenaren ikus-entzunezko materialak ikusi ahal izateko.



6.5.11. Facebook

2009ko abenduan jarri zen martxan Gizonduzen profila Facebook-oken, sare sozial horren bidez ekimena sozializatzeko teknologia berri hauek eskaintzen dituzten aukerak baliatuta. Gizonduz-ek 4.500 lagun inguru zituen 2010eko abenduan.

6.5.12. Youtube

2009ko abenduaz geroztik ekimenak Gizonduz Kanala du Youtuben. Bertan ekimenak sortzen dituen ikus-entzunezko material guztiak kontsulta daitezke, esaterako, berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako euskal gizonen Kartaren irakurketa-bideoa, azaroaren 24ko ekitaldirako egindako dokumentala, Aitak dokumentalaren laburpena eta ekimena abian jarri zenetik egin diren publizitate-iragarkiak.



6.7. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURKAKO GIZONEN EKITALDIA

1.1. neurria betetze aldera, eta azaroaren 25a ospatzen zela-eta, «Euskal gizonak emakumeenganako indarkeriaren aurka» ekitaldia, lehendakaria buru zela, egin zen Bilboko Arte Ederren museoan 2008ko azaroaren 24an. Euskal gizarteko hainbat alorretako (esaterako, politika, kultura, kirola, komunikabideak, ekonomia, gizarte mugimenduak) 200 pertsona –gehienak gizonak– bertaratu ziren.

Ekitaldian zenbait kultura jarduera egin ziren; Xabier Muguruzak abestu zuen, Kirmen Uribek poema bat irakurri zuen eta dantza emanaldi bat egon zen. Ekitaldian Gizonduz ekimenaren laburpen-bideo bat ere eman zen. Michael Kauffmanek, Ritxar Bacetek eta Xabier Odriozolak parte hartzen dute bideo horretan.



6.8. PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO PROGRAMA

1.8. eta 2.3. neurriak betetze aldera, Gizonduz Prestakuntza eta sentsibilizazio programaren lehenengo edizioa jarri zen martxan. Programa internet bidezko zein aurrez aurreko ikastaroek osatzen dute. Ikastaroen eskaintza zabala da eta moldaerazak eta malguak dira.

Indibidualki edo taldean, interesatzen zaielako edo ikuspuntu profesionaletik, gizon eta emakumeen arteko berdintasunean eta horren aldeko lanean trebatu edo sakondu nahi duten gizonen zuzenduta dago ikastaroa; hala ere, emakumeek ere parte hartu dute. Prestakuntza programaren lehenengo edizioak iraun dituen bederatzita hilabeteetan (2009ko martxotik abendura) 55 ikastaro egin ziren, eta horietan 938 pertsonak parte hartu zuten, 639 gizonak eta 299 emakumeak. Guztira, 321 prestakuntza-ordu eman ziren. Ikastaro horietatik 53 aurrez aurrekoak izan ziren, eta horietan 753 pertsonak parte hartu zuten. Internet bidez egin ziren bi ikastaroetan (8 eta 60 ordukoak), 106 pertsonak (64 gizonak eta 42 emakumeak) parte hartu zuten eta 79 pertsonak (63 gizonak eta 16 emakumeak); guztira, beraz, 185 pertsonak.

Prestakuntza eta sentsibilizazio programaren 2010eko ekitaldian, 87 ikastaro egin ziren. Guztira 2178 partaide izan ziren, 1026 gizon eta 1152 emakume. Ikastaro horietatik 85 aurrez aurrekoak izan dira, eta 1795 partaide izan dituzte (895 gizon eta 900 emakume). Prestakuntzako 60 orduko online ikastaroan 138 partaide izan dira (85 gizon eta 53 emakume) eta sentsibilizazioko 8 orduko

online ikastaroan, berriz, 245 lagunek parte hartu dute (46 gizon eta 199 emakume).

Beraz, 2009 eta 2010ean 142 ikastaro egin dira, eta 3116 lagunek parte hartu dute, horietatik 1665 gizonak eta 1541 emakumeak.

6.8.1. Aurrez aurreko ikastaroak

Ikastaroak egin aurretik, maskulinitatean eta generoan aditu diren zenbait pertsona kontratatu ziren. Pertsona horiek proposamen teoriko bat egin zuten, eta, bertan, gaien egoera eta ikuspuntu teoriko berriak, esku hartzeko proposamen praktikoak eta edukia pedagogiaren aldetik garatzeko dinamikak jaso zituzten.

Oinarri teoriko horrekin sentsibilizazioko eta prestakuntzako programa bat egin zen. Programak bi ikastaro mota biltzen zituen, Emakundek programatutakoak batzuk, eta programatu gabekoak edo neurritan egindakoak besteak. Guztira, hainbat gai jorratzen zituzten 16 ikastaro mota eskaini ziren. Ikastaroek 4 orduko iraupena zuten, gizonen, berdintasunari eta maskulinitateari eskainitako ikastaro aurreratuak izan ezik, hori 20 ordukoa baitzen. Gainera, 4 orduko oinarritzko iraupena luzatzeko aukera zegoen, gehitzen ziren eduki zehatzen arabera.

Bi ikastaro mota horietan eduki berak eskaintzen ziren. Programatuen kasuan, ikastaroaren alderdi nagusiak aurrez zehaztuak zeuden, esaterako, data, tokia eta hizkuntza, eta neurritan egindakoen kasuan, berriz, eskariaren arabera egiten ziren, hala edukien luzerari dagokionez nola tokiari eta hartzaileei dagokienez. Neurritan egindako ikastaroak erakunde publikoen, gizarte taldeen, enpresen, GKEen, ikastetxeen eta abarren beharretara egokitutako prestakuntza tresna malgua izateko pentsatuta zeuden.

Ikastaro guztiek zuten, batetik, zati teoriko komuna, gizon eta emakumeen arteko desberdintasunen jatorriari buruzko oinarritzko zenbait nozio eta eredu maskulino hegemonikoaren, tradizionalaren edota beste maskulinitate batzuen analisia barne hartzen zituena, eta bestetik, eduki espezifikoaren zatia.

Ondorengo hauek izan ziren eskaini ziren aurrez aurreko ikastaroen gaiak:

- Gizonak, berdintasuna eta maskulinitate berriak
- Kriminalitatearen prebentzioa eta gizonen identitateen sorrera.
- Lan arriskuen prebentzioa eta gizonen identitateen eraikuntza.
- Lantokian sexu eta sexuagatiko jazarpenaren prebentzioa eta gizonen identitateen eraikuntza.
- Emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioa eta gizonen identitateen eraikuntza.
- Gizonen indarkeriak: indarkeriaren legitimazioa, identitatearen gizonen eraikuntza. Herriaren mitoa.
- Genero azterketa, gizonen ikuspegitik, eta garapenerako lankidetzaren estrategiak.
- Arriskuak murriztea, drogomendekotasunen prebentzioa eta gizonen identitateen eraikuntza.
- Bide heziketa, istripuen prebentzioa eta gizonen identitateen eraikuntza.
- Berdintasuneko aitatasuna
- Gizonak, maitasuna eta berdintasun harremanak.
- Gizonak komunikabideetan.
- Gizonak eta osasuna.
- Gizon zaharrak eta zaintza: nork bere burua eta gainerako pertsonak zaintzea.
- Maskulinitateak, generoa eta giza eskubideak.

En el año 2010 se añadió un nuevo curso: Los hombres y la igualdad en el mundo laboral.

2009ko edizioan, ikastaro programatuak 22 izan ziren, baina, eskaria txikia izan zenez ondorengo hauek baino ez ziren egin:

- Gizonak, berdintasuna eta maskulinitate berriak, 20 ordukoa, martxoan Gasteizen egin zena.
- Lan arriskuen prebentzioa, 4 ordukoa, apirilean Bilbon egin zena.
- Maskulinitatea eta kriminalitatea, 4 ordukoa, apirilean Gasteizen egin zena.
- Gizonezko indarkeriak, 4 ordukoa, maiatzean Bilbon egin zena.
- Gizonak, berdintasuna eta maskulinitate berriak 20 ordukoa, maiatzean Bilbon egin zena.
- Emakumeen kontrako indarkeria prebenitzea, 4 ordukoa, maiatzean Gasteizen egin zena.
- Droga kontsumoa prebenitzea eta maskulinitateak, 4 ordukoa, ekainean Gasteizen egin zena.
- Maskulinitateak eta hedabideak , 4 ordukoa, azaroan Bilbon egin zena.

Programatutako ikastaroek ez bezala, neurrira egindako ikastaroek oso harrera ona izan zuten. Enpresa hauetan egin ziren ikastaroak: AZ Procesos Participativos enpresan (8 orduko ikastaro bat), JEZ Sistemas ferroviarios enpresan (4 orduko bat), Informática Zamudio enpresan (4 orduko bi ikastaro) eta Unilever enpresan (4 orduko bat). Horietan, gizona, berdintasuna eta maskulinitateak gaia jorratu zen. Ingeteam Industry SA metalurgiarako ingeniariak elektrikoan enpresako tarteko agintarientzako gizon eta berdintasunari buruzko 4 orduko bi ikastaro orokor eta enpresako aitekin bizitza profesionala eta familiaokoa uztartzeari buruzko 2 orduko beste bat egin ziren.

Unibertsitatearen eremuan, gizonen eta berdintasunari buruzko 3 orduko ikastaro bat eman zen Bilboko Irakasleen Eskolan, eta Lan Harremanen Eskolan, 8 orduko modulu bat, lan arriskuak prebenitzeko Masterrean. Bertan, maskulinitatearen eta lan arriskuen arteko erlazioa aztertu zen eta lan munduko sexu jazarpenaren gaia jorratu zen. Eskola berean 16 orduko beste ikastaro bat eman zen. Ondorengo gai hauek tratatu ziren: erantzukidetasuna eta zaintzak, gizonezkoen indarkeria eta emakumeen kontrako indarkeria, maskulinitatea eta lan arriskuen prebentzioa eta laneko sexu jazarpenaren prebentzioa.

Atzerriko populazioari eta sektore horretan lan egiten duten hezleei zuzendutako 6 ikastaro ere egin ziren, Sartu (5 orduko hiru ikastaro) eta Prestaturik (2 orduko ikastaro bat) elkartearen eta Norabide Gasteizko udaleko atzeritarrentzako harrera zentroaren (4 orduko bi ikastaro) laguntzarekin.

Sestaoko udalak udal langileentzako 4 orduko bi ikastaro antolatu zituen, Mungiako udalak udalerririko aitei zuzendutako 2 orduko ikastaro bat antolatu zuen eta Zornotzako udalak beren zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonentzako 4 orduko ikastaro bat antolatu zuten.

Eusko Jaurlaritzaren mende dagoen Euskal Kirol Patronatuarekin eta EJIE zerbitzu informatikoen Eusko Jaurlaritzaren enpresa publikoarekin lankidetzan ere gizonen eta berdintasunari buruzko 4 orduko ikastaroak antolatu ziren.

Erakundeen esparruan, aipatzekoak dira Bilboko gizon-taldearekin eta ONGIZ elkartearekin egindako ikastaroak, sei eta zortzi ordukoak, hurrenez hurren. Euskadiko GKEen Koordinakundearekin ere 10 orduko ikastaroa egin zen. Lankidetzaren genero ikuspuntutik aztertu eta maskulinitatearen gaia jorratu ziren ikastaro horretan.

ESK sindikatuarekin lankidetzan 8 orduko 5 ikastaro egin ziren. Horiek ordezkari sindikalei zuzendu zitzaizkien eta maskulinitateari eta lan arriskuak prebenitzeari eta lan munduko sexu jazarpenari buruzkoak ziren.

Era berean, Emakunde ondorengo sentsibilizazio-jardunaldi hauetan parte hartu zuen Gizonduzen bitartez:

- «Gizonak berdintasunaren erronkaren aurrean», Deustuko San Ignazio Modulu Psikosozialaren laguntzarekin.

- «Gizonak berdintasunaren alde», Amikeko elkartearekin lankidetzan.

ESK eta CCOO sindikatuen laguntzarekin, ordezkari sindikalentzako sentsibilizazio jarduerak ere egin ziren.

Parte hartzaileek oso ondo baloratu zituzten ikastaroak; 1etik 6ra bitartean, edukiak eta hizlariak 5etik gora baloratu zituzten, parte hartzea eta taldetako dinamizazioa 4 punturekin baloratu zuten eta erabilitako materiala 4,4 punturekin. Gainera, parte hartzaileen % 96,8k eduki horiek beren bizitza pertsonalerako erabilgarriak zirela uste zuten eta % 83,6k bizitza profesionalerako zirela esan zuten.

Aurreko aldian bezalaxe, 2010eko edizioan ere programatu gabeko aurrez aurreko ikastaroek edo eskariz prestatutakoek harrera ona izan zuten eta Emakunderen Gizonduz Ekimenak eskainitako prestakuntzaren zatirik handiena hartu zuten. Horrenbestez, programatuak ziren aurrez aurreko lau ikastaroetatik bakarra egin zen.

Eskariz enpresekin batera 2010ean antolatutako ikastaroen artean, Zamudioko Ingeteam Industry S.A. enpresan eskainitako formazioa da aipagarria. Bertan, sei ikastaro antolatu ziren: bi erdi mailako kargudunentzat, bat aita direnentzat eta hiru langile guztientzat. Guztira, 16 ordu izan ziren. Unilever enpresan bi ikastaro egin ziren erdi mailako kargudunekin (8 ordu). Betean enpresan ere bai (5 ordu). Bidesari enpresan, berriz, ikastaro bat antolatu zen (5 ordu), beste bat Bidez Bide enpresan (12 ordu) eta beste bat Guggenheim Museoan (4 ordu). Elhuyarren jendaurreko hitzaldia antolatu zen (2 ordu).

Sindikatuaren arloan, ESKrekin ponentzia bat antolatu zen (2 ordu) Bizkaiko ordezkarien batzarrean, eta 8 orduko beste 3 ikastaro espezializatu. CCOO sindikatuan ikastaro bat antolatu zen (3 ordu) eta UAGAn urteko batzarrean parte hartu zen (ordu 1) eta ikastaro bat antolatu zen sindikatuko emakumeen batzarrean (3 ordu).

Hezkuntzaren sektorean, unibertsitate arloan bi ikastaro antolatu ziren EHUko Gizarte Laneko Eskolan (3 ordu). Gasteizko EHUko Irakasle Eskolan mahai inguru batean eta World Cafe batean parte hartu zen. Hegoa Institutuaren masterrean aurrez aurreko saio bat egin zen (4 ordu). Ikastaroak egin ziren Tolosako Hirukide eskolako guraso elkartearekin (2 ordu), Gasteizko Umandi Ikastolakoarekin (2 ordu) eta Laudioko eskolakoarekin (2 ordu). Galdakaoko LHko BHLan ikastaro bat egin zen (4 ordu) eta Bilboko Solokoetxe Institutuan hainbat ikastaro egin ziren aldi berean (4 ordu).

Erakundeetan eta erakundeentzat antolatutako formazioan aipatzekoak dira Santurtziko Udalarekin batera gauzatutako esku hartzeak, Santurtzi Berdingunea proiektuaren bidez. Lau hila batean 16 ikastaro egin ziren, 52 prestakuntza ordurekin eta 309 partaiderekin. Prestakuntza prozesuari amaiera emateko, jardunaldiak antolatu ziren, aldi bereko hiru tailerrekin (3 ordu). Gainera, Gasteizko Udalarekin batera 5 ikastaro egin ziren (9 ordu), eta Gizonduz Ekimenaren hainbat ikastaro eskaini ziren koerantzukizunaren alorreko prestakuntza programaren barruan. Antzuolako Udalean ikastaro bat antolatu zen (4 ordu), eta beste horrenbeste egin zen Getxokoan (2 ordu), Bergaran (2 ordu), Zarautzen (12 ordu) eta Zumarragan (4 ordu). Durangoko Udalak, Berdintasun Sailaren bitartez bi ikastaro antolatu zituen udaltzaintzat (8 ordu).

Arabako Foru Aldundian langileentzako ikastaro bat antolatu zen (4 ordu).

Eusko Jaurlaritzan, Emakunden hiru orduko formazio saio bat egin zen online ikastaroaren barruan. Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Sailean 4 orduko ikastaroa egin zen. Gazteriaren Euskal Behatokiarekin batera bi ikastaro antolatu ziren (30 ordu).

Gizarte erakundeekin hainbat formazio saio antolatu ziren. "En clave de ciudadanas por Getxo" elkartearekin ikastaro bat egin zen (4 ordu). Euskadiko GGKEen Koordinakundearekin ere ikastaro bat egin zen (9 ordu), eta hainbat GGKEetako kideekin berdintasunaren aldeko gizon talde bat sortzen lagundu zen. Beste horrenbeste egin zen Gipuzkoako GGKEen Koordinakundearekin (4 ordu). Arabako Baserritar inguruko Emakumeen Sarearekin beste ikastaro bat egin zen (4 ordu). Tolosako gizon taldearekin hiru ikastaro eman ziren (6 ordu). Gainera, 4 ikastaro egin ziren atzerritarrekin diharduten elkarteekin, hiru Errota Sartu elkartearekin (12 ordu) eta Mboloy Moy Dole elkartearekin (4 ordu).

Beste ikastaro bat egin zen Basauriko espetxeko presoekin (8 ordu).

Gainera, Emakundek, Gizonduz-en bidez, erakunde hauekin elkarlanean sentsibilizazio ekintzak antolatu zituen:

- Clara Campoamor Elkarte, 2 orduko ponentzia.
- Deustuko modulu psikosoziala, hiruna orduko bi tailer.
- Bizkaiko emakume elkarten azoka, 2 orduko ikastaroa, 40 lagun.
- Arabako "el Pilagar" emakumeen elkartearekin ordu beteko saioa.



6.8.2 Internet bidezko ikastaroak

a) ON LINE SENTSIBILIZAZIOA

2009ko apirilean sentsibilizazio ikastaro bat jarri zen martxan Gizonduzen webgunean. Ikastaro horrek gizon eta emakumeen berdintasunarekin erlazionatutako oinarritzko gai eta auzietara gerturatzeko aukera eskaintzen du. Ikastaroak 8 orduko iraupena du eta eguneko edozein unetan egin daitezke. Honako alderdi hauek tratatzen dira ikastaroan: genero ezberdintasunen jatorria, sexuaren araberako rol eta estereotipoek sozializazioan duten papera, eredu maskulinoen berrikuspena, gainerakoen eta norbanakoaren zaintzak gizonen bizitzan duen papera, gizonen inplikazioa etxeko lanetan, sozializazio sexistak gizonen sortzen dizkien genero arazoak eta identitate maskulinoa eraikitzean indarkeria legezkotzeak duen papera.

2009ko apiriletik abendura 106 pertsonak amaitu zuten ikastaroa. Amaitu zutenetatik 64 gizonak ziren, haiei zuzentzen zitzairen, hain zuzen, ikastaroa, eta 42, berriz, emakumeak izan ziren.

2010ean 245 lagunek bukatu zuten arrakastaz ikastaroa. Horietatik soilik 46 ziren gizonak eta 199 emakumeak. Horrenbestez, aurreko urteko joera aldatu egin zen.

Parte hartzeko mekanismoa oso erraza eta interaktiboa da. Gizonduzen webgunean izena eman

ondoren, denboraren erabilerei buruzko galdeketa proposatzen da. Galdeketaren helburua berdintasunezko eguneroko jardueraren inguruan norberak hausnartzea da, berdintasunarekin zuzenean lotuta dauden gaietan (etxeko lanetan eta besteen zaintzan) zer nolako parte hartzea dugun erakusten baitu galdeketak. Galdetegia amaitu ondoren, Gizonak eta berdintasuna dokumentua kontsulta daiteke. Material dinamiko horrek beste testu batzuetara eramango gaitu, eta horiei esker proposatzen diren gaietan sakondu ahal izango dugu, bakoitzak gai horiei buruz duen interesaren arabera. Gizonak eta berdintasuna dokumentua atal hauez osatua dago:

Atarikoak.

A) Argi ditzagun kontzeptuak:

- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna.
- Sozializazioa eta maskulinitateak.
- Maskulinitate hegemonikoa edo tradiziozkoa
- Gizonak eta boterea

B) Boterearen prezioa

- Gizonak eta emozioak.
- Maskulinitatea eta arriskuaren kultura.
- Gizonen genero arazoak.
- Indarkeria matxista.
- Mikromatxismoak.
- Maitasun erromantikoaren ideala eta bikote harremanak.
- Gizonak, zainketa lanak eta etxeko lanak

C) Aldaketa gizonengan

- Gizonengan gertatutako aldaketak azaltzeko zenbait arrazoi.

Prozesuari amaiera emateko, ebaluazioa egiten da batetik, ikastaroko edukiak ondo ikasi diren neurtzeko, eta hasierako galdeketa planteatzen ziren gaien errepasoa bestetik, ikastaroa burutzeko eman duen denboran (gutxienez 15 egun) ikaslearen jokabidean aldaketak gertatu diren egiaztatzeko.

On line sentsibilizazio ikastaroaren balorazioari dagokionez, parte hartzaile guztiek adierazi zu-



ten ikastaroa baliagarria izan zela beren bizitza pertsonalerako, eta % 91,3k, berriz, baliagarria izan zela bizitza profesionalerako. Ikastaroa egin zutenek 4,8 punturekin baloratu zuten ikastaroaren interes orokorra, 4,4 punturekin edukiak, 4,3 punturekin erabilitako materialak eta 3,9 punturekin gaiari buruzko aurreko ezagutzak, 1etik 6ra bitarteko puntuazioaren arabera.

b) ON LINE PRESTAKUNTZA

Gizonduzek eskaintzen duen internet bidezko 60 orduko ikastaroaren lehen edizioa 2009 irailaren 21etik abenduaren 21era bitartean egin zen, eta bigarrena, berriz, 2010eko tarte berean. Eskaria handia zenez, hasiera batean aurreikusi zen plaza kopurua handitzea erabaki zen. Guztira, beraz, 79 plaza eskaini ziren; horietatik erdiak baino pixka bat gehiagok amaitu egin zuten prestakuntza jarduera. 45 lagunek ez zuten aukera izan ikastaroa egiteko. Horiei lehentasuna eman zien hurrengo edizioan.

Ikastaroaren bigarren edizioan, eskariak goraka jarraitu zuen eta plazak 138raino gehitu ziren. Hala ere, 107 lagun geratu ziren itxaron-zerrendan. Ikastaroa hasi zuten 138 lagunetik 76k arrakastaz bukatu zuten, 39 emakumek eta 37 gizonak.

Nabarmendu behar da matrikula egiteko orduan bi edizioetan lehentasuna eman zitzaizela gizonari, eta ondorioz parte hartzaileen % 80 sexu horretakoak izan ziren 2009an eta % 59, berriz, 2010ean. Deigarria da emakume gehiagok amaitu zutela ikastaroa, zehazki, % 56ak, gizonen % 44aren aldean 2009an eta gizonen % 46k eta emakumeen % 54k 2010ean.

Ikastaroaren amaierako ebaluazioari dagokionez, ikasle parte hartzaileen % 85ek beren bizitza pertsonalerako baliagarri iritzi zioten eta % 92k, berriz, bizitza profesionalerako lehen edizioan, eta ikastaroaren 2010eko edizioan, berriz, % 98k eta % 94k hurrenez hurren. Ikastaroaren balorazio orokorra ere nabarmentzeko modukoa da, 10 puntutik 8,3 baino gehiago eman baitzizkioten 2009an eta 8,5 puntu, berriz, 2010ean.

Ikasleen jatorriari dagokionez, lehen edizioan % 37 Arabakoak ziren, % 37 Bizkaikoak eta % 8 besterik ez Gipuzkoakoak. % 17 Estatuko gainerakotik etorri ziren. Ikastaroaren bigarren edizioan partaideen % 62 Bizkaitik zetozen, % 13 Arabatik, % 10 Gipuzkoatik, % 8 Estatuko beste leku batzuetatik eta % 8 batez ere Latinoamerikatik.

Ikasketa mailaz aipatu beharra dago lehen edizioan ikastaroa amaitu zutenen artean % 75ek goi mailako unibertsitate heziketa zutela, % 17k erdi mailako unibertsitate ikasketak zituzten eta % 4k doktoregoa. Bigarren edizioan, berriz, % 67k unibertsitate ikasketak zuen eta % 13k erdi mailako ikasketak.

Adinari erreparatuta, lehen edizioan parte hartzaileen % 45en adina 30 eta 40 urte artekoa zen eta % 37rena 41 eta 50 urte artekoa. % 8 soilik zen 52 urtetik gorakoa eta 29 urtetik beherakoa. Bigarren edizioan, berriz %40k 30 eta 40 urte artean zuen, % 46k 41 eta 50 artean, % 5ek 51 baino gehiago. Aipatzekoa da formazioa bukatu zutenen % 2 soilik zirela 18 eta 29 adin tartekoak.

Ikastaroaren edukiak 9 gaitan antolatu ziren eta 9 tutore zeuden; horiek, material teorikoak, jarduerak eta ebaluazio testak prestatzeaz gain, zegokion gaiaren jarraipena eta tutoretza egin zituzten. Honako hauek ziren gaiak:

- 1. gaia: Genero eraikuntzaren prozesua. Nola egiten garen emakume edo gizon. Tutorea: Antonio García.
- 2. gaia: Maskulinitate hegemoniko edo tradiziozkoaren ereduaren berrikuspen kritikoa. Gizonen genero arazoak. Tutorea: Ritxar Bacete González
- 3. gaia: Gizonak zaintza eta etxeko lanen aurrean. Tutorea: Daniel Leal González.

- 4. gaia: Gizonak, maitasun erromantikoa eta bikotea. Tutorea: Josetxu Riviere Aranda.
- 5. gaia: Maskulinitatea eta indarkeria. Tutorea: Erick Pescador Albiach.
- 6. gaia: Emakumeen aurkako indarkeria. Tutorea: Jose Ángel Lozoya Gómez.
- 7. gaia: Feminismoaren historia eta teoriak. Tutorea: Edurne Aranguren Vigo.
- 8. gaia: Berdintasunaren aldeko gizonen mugimendua. Tutorea: Xabier Odriozola Ezeiza.
- 9. gaia: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika publikoak. Tutorea: Ander Bergara Sautua.

Ikastaroko gaietako bakoitzak honako hauek zituen:

- PDF bat, aditu bakoitzak egindako ekarpen teorikoak, ordura arte argitaratu gabekoak, biltzen dituenak.
- Flash aurkezpen bat, animazioduna eta gai bakoitzari buruzko oinarrizko auzien laburpena biltzen duena.
- Jarduera bat.
- Beste material batzuk: gomendatutako irakurgaiak, interneteko estekak, prentsako artikulak, eta abar.
- Terminoen glosarioa.
- Ebaluazio testa.

Ikastaroa egiteko Saba prestakuntza interaktiboaren plataforma erabili zen. Horrek edukiak modu dinamikoan eskaintzen ditu, ikasleari ahalik eta gehien parte hartzeko aukera ematen dio eta tutoreei ikasleek egiten duten lana jarraitzeko eta ebaluatzeko aukera ematen die.

Ikasteko sistemak garrantzi handia ematen dio ikaslearen parte hartzeari eta ikaslearen eta irakasle eta gainerako matrikulatuen arteko erlazioari. Komunikazio helburu hori betetzeko, eta hori eraginkorra izan zedin, zenbait komunikazio tresna jarri ziren erabilgarri, tartean:

- Foroa, tutoreen eta ikasleen topalekua, ikastaroaren edukiak azaltzeko, zalantzak argitzeke, eztabaidak sortzeko eta abarretarako «ikasgela birtual» antzeko bat.
- Irakasleen ohola, ikastaroarekin lotutako kontuak ikasleei jakinarazteko irakasleek erabiltzen zuten tresna.
- Oharren ohola, oharrak jartzeko irakasleek erabiltzen zuten tokia. Txata, ikasle eta irakasleei denbora errealean komunikatzeko aukera ematen zuten tresna.
- Jardueren buzoia.
- Wiki gunea, gai bakoitzari buruzko edukiak, material osagarriak eta ekarpenak biltzen zituen espazioa.

- Horretazi guztiaz gainera, ikastaroarekin zerikusia zuten kontu guztietarako posta-kontu pertsonala zuten irakasle zein ikasleek.

Ebaluazioaren datuek erakusten dutenez, erabilitako plataforma eta baliabide teknikoak 3,5 punturekin baloratu ziren (5etik) eta ikasleen esku jarritako euskarri teknikoak 4,25 punturekin.

6.9. GIZONEN ARTEAN BERDINTASUNARI BURUZKO PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO EKINTZAK ZABALTZEA


1.4. eta 2.2. neurriak betetze aldera, eta gizonak emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko ikastaro, master eta graduondokoetan eta Emakunde antolatzen duen Berdintasunerako Foroan parte hartzea bultzatzeko, jarduera horiei buruzko publizitatea egiteari ekin zitzaion Gizonduzen webgunearen bitartez. Horrez gain, buletin elektronikoa bidali zitzaien berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako euskal gizonen Karta sinatu zuten guztiei eta Gizonduzen sentsibilizazio eta prestakuntza programaren testuinguruan antolatu ziren ikastaroetan parte hartu zutenei.

Gainera, Berdintasunerako Foroaren testuinguruan gizonekin eta berdintasunarekin erlazionatutako bi jarduera garatu ziren:

- Escribe-Lee elkarteak antolatu zuen *maskulinitateari buruzko tailerra* (Bilbo, 2008).
- Berdintasunaren aldeko Arabako gizon-taldeak, berriz, *Gizonak emakume eta gizonen berdintasunaren aurrean*. Eta gu zer? izeneko world cafe topaketa antolatu zuen (Gasteiz, 2009).

6.10. BERDINTASUNAREN ALDEKO GIZONEN ELKARTEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK

1.4. neurria betetze aldera, Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen berdintasunaren alden diharduten gizon-elkarteentzako diru-laguntzak arautzen dituen 2009ko apirilaren 21eko Ebazpena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2009ko ekainaren 2an.



Diru-laguntzen zenbatekoa 18.000 eurokoa izan zen, eta 7 diru-laguntza ematea erabaki zen. Uko bat egonenez, azkenean 6 izan ziren diru-laguntza jaso zuten proiektuak. Berdintasunaren aldeko Arabako, Bilboko eta Ermuko gizon-taldeen eta Gizon Sarea Elkartearen berdintasuneko gizonen sarrak aurkeztu zituzten proiektu horiek. Berdintasunaren aldeko eta indarkeriaren kontrako jarduerak egiteko proiektuak ziren; besteak beste, sentsibilizazio kanpainak, prestakuntza programak, jardunaldiak eta topaketak.

ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENA	ZENBATEKOA
Berdintasunaren aldeko gizonen Arabako taldea, "GHIA"	Genero berdintasuna eta zinema	2.084,06
Gizon Sarea Elkartearen	Emaiozu buelta indarkeriari	2.951,06
Gizon Sarea Elkartearen	Gizon Sarea Elkartearen webgunea	2.944,06
Berdintasunaren aldeko gizonen Arabako taldea, "GHIA"	Jostailu ez sexistaren kanpaina	2.354,06
Berdintasunaren aldeko Ermuko gizon taldea, "Zipriztintzen"	Euskadiko gizon taldeen lehen topaketa	3.611,56
Berdintasunaren aldeko gizonen taldea, "Piper txuriak-Guindillas blancas"	Gizonek gizon-emakumeen arteko sentsibilizazioan parte hartzeko sentsibilizazio ekintzak. 2009.	3.051,14

6.11. AHOLKULARITZA

Ekimena abian jarri zenetik, berdintasunarekin, gizonekin eta maskulinitateekin, oro har, eta Gizonduzen alderdi eta neurriekin, zehazki, zerikusia zuten hainbat kontsulta erantzun dira. Kontsulta horiek pertsonak, berdintasuneko eragileak, emakumearen institutuek, legegintza-organismoek, udalak, kirol federazioek, elkarteek, sindikatuak, enpresek, emaginek eta abarrek egin dituzte. 2007-2010 aldian erantzun ziren kontsulta gehienak Sentsibilizazio eta Prestakuntza Programarekin erlazionatuta zeuden.

Kontsultak erantzuteko bide hauek erabili ziren: telefonoa, posta elektronikoa eta zehazki horretarako antolatu ziren bilerak.

6.12. KOMUNIKABIDEETAN ETA SENTSIBILIZAZIO EKINTZETAN PARTE HARTZEA

Emakundek sentsibilizazio jarduera askotan parte hartu du Gizonduz ezagutzera emateko. Honako hauek dira nabarmentzekoak:

- «Cómo se construyen los modelos masculinos» mahai-inguruan parte hartu zuen. Mahai-inguru hori Emakumearen Aragoiko institutuak eta berdintasunaren aldeko Aragoiko gizon-elkarteak 2008an Zaragozan antolatu zuen Berdintasunaren aldeko gizonen I. batzar nazionalaren testuinguruan egin zen.

- «Generoen berdintasunaren alde gizonen parte hartzea sustatuz: erakunde publikoen ekimenak» izeneko mahai inguruan parte hartu zuen. «Berdintasuna sustatzeko benetako esperientziak, gizontasun hegemonikoa deseraikitzen abiatuta» jardunaldiaren baitan antolatu zuten

mahai-ingurua Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultateak eta On:giz elkarteak. Donostian izan zen, 2008an.

- «Gizonduz: berdintasunaren alde eta emakumezkoen aurkako indarkeriaren aurka gizonen partaidetza sustatzeko ekimena» hitzaldia eman zuen, «Emakumezkoen aurkako indarkeria gehiagorik ez III. jardunaldiaren» baitan. Amnesty International-ek antolatu zuen Donostian 2008an.

- Gizonduz ekimena aurkezteko hitzaldiak eman zituen Abadiñon, Arrigorriagan eta Derion 2008an. Herri horietako udalek antolatu zituzten hitzaldiak, azaroaren 25a, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna, ospatzeko.

- «Corresponsabilidad y paternidad» tailerra koordinatu zuen. Homes Igualitaris berdintasunaren aldeko Kataluniako gizon-elkarteak 2009an Bartzelonan antolatu zuen «Hombres e Igualdad» jardunaldiaren testuinguruan antolatu zen tailer hori.

- Deustu-San Ignazio Modulu Psikosozialak 2009an Bilbon antolatu zuen «Gizonak berdintasunaren erronkaren aurrean» jardunaldia koordinatu zuen.

- Gizonduz ekimena aurkeztu zuen 2009an Bilboko Irakasleen Eskolak antolatutako jardunaldietan, berdintasun plana egiteko lan jardunaldietan, hain zuzen ere.

- «Gizonduz: egindako jarduerak eta etorkizuneko erronkak» hitzaldia eman zuen. Amnesty International-ek Donostian 2009an antolatutako «Emakumeen aurkako indarkeria gehiagorik ez: Berdintasunaren aldeko maskulinitate berriak» IV. jardunaldien barruan.

- «Gizonak berdintasunaren alde inplikatzeko esperientzia praktikoak. Gizonduz esperientzia erreferentziako esparru gisa» hitzaldia eman zuen Amikeco elkarteak Bilbon antolatu zuen «Berdintasunaren aldeko gizonak» jardunaldiaren barruan.

- Genero indarkeriaren kontrako V. jardunaldietako mahai-inguruan parte hartu zuen. Genero indarkerien kontrako Plataforma Unitarioak antolatu zituen jardunaldiak Bartzelonan, 2009an. Tenerifeko La Laguna unibertsitateko 2009ko udako ikastaroetan parte hartu zuen, hain zuzen ere, «Igualdad y masculinidades» ikastaroan hitzaldi bat eman zuen.

- PPIINA elkarteak Madrilen antolatu zuen mahai-inguruan parte hartu zuen. «Con su permiso. Para la igualdad, permisos iguales» lehenengo Europako Jardunaldien barruan antolatu zen mahai-inguru hori 2009an. (2009)

- «Gizonak berdintasunaren alde inplikatzeko esperientzia praktikoak. Gizonduz esperientzia erreferentziako esparru gisa» hitzaldia eman zuen Amikeco elkarteak Bilbon antolatu zuen «Berdintasunaren aldeko gizonak» jardunaldiaren barruan.

- Andaluziako Landa Inguruko Emakumeen eta FADEMUR-en jardunaldian parte hartu zuen. Gizonduz Ekimenaren aurkezpena eta ponentzia. Sevilla (2010)

- “Circuito Barcelona Contra la Violencia” jardunaldietan parte hartu zuen bi ponentziarekin. Bartzelonako Udala (2010).

Beste alde batetik, 2010ean Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak “Berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka gizonak inplikatzeko politika publikoak” izeneko jardunaldia antolatu zuen eta Miguel Lorente Acosta, Berdintasun Ministerioko Genero Indarkeriaren kontrako Gobernuaren ordezkariak izen bereko hitzaldia eman zuen. Urte berean Emakunde, Gizonduzen on-line ikastaroaren barruan, “Gizonak koerantzukizunaren erronkaren aurrean” ize-

neko mintegia antolatu zuen. Mintegi horretan Paco Abril soziologoak hartu zuen parte hizlari eta dinamizatzaile gisa. Ekitaldi biak zuzenean eman ziren internetez, Irekia-ren bidez.



Aipatzekoa da, gainera, Emakundek 2010ean parte hartu zuela Nafarroako Parlamentuaren Gizarte Gaiak, Familia, Gazteria eta Kirolari buruzko Batzordearen lan saio batean ekimenaren berri emateko. Parte hartze horren ondorioz, Parlamentuak talde guztien mozio bat onartu zuen Nafarroako Gobernuari eskatzeko gizonak berdintasunaren aldeko lanean inplikatzeko dinamika abian jar zezala.

Horiez guztiez gainera, honako aldizkari hauetan agertu dira Gizonduz ekimenari buruzko erreportajeak: ESK sindikatuaren Arian aldizkarian, Genero Berdintasunaren aldeko Gizon-elkar-tearen Ahige aldizkarian, Frida aldizkarian eta Aldaketa Hamasei aldizkarian.

7. ZER BALORAZIO EGITEN DA EKIMENAREN GARAPENAZ?

«Berdintasunak gizonago egingo zaitu» Gizonduzen ekimenaren dokumentuan jasotako lan-plana erreferentzi hartuta, 2007-2009 aldirako Gizonduz ekimenak proposatu dituen neurrien gauzatze-maila, oro har handia izan da, % 70 ingurukoa. Ondorengo taula honetan ikus daitekeen bezala, 19 prebentzio neurritik 13 aldi horretan burutu dira 2010eko abendura arte. Gauzatze-maila helburuen arabera aztertzen badugu, ikusiko dugu 1. helburuari (emakumeen eta gizonen berdintasunaz sentsibilizatutako gizon-kopurua handitzea) dagozkion 10 neurrietatik 9 gauzatu direla. Gauzatu gabe gelditu den neurri bakarra 1.10. neurria izan da, alegia, Lehendakaria buru izango zuen ekitaldi publiko bat antolatzea modu batean edo bestean Gizonduz ekimenean parte hartu duten pertsoneri eskerrak emateko. Azkenean egin gabe gelditu zen 2009ko hauteskunde autonomikoen ondorioz gobernu aldatu baitzen.

2. helburuari (emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko prestakuntza duen gizon-kopurua handitzea) dagokionez, nabarmentzekoa da lau neurriak gauzatu direla.

Aldiz, 3. helburuan (etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan gizonen erantzukidetasuna handitzea) proposatutako 5 neurrietako bat ere ez da burutu. Hori ez da gertatu Eusko Jaur-laritzaren borondate edo konpromiso faltagatik -aitzitik, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza horiek abian jartzearen alde agertu zen eta proposamen zehatzak egin zituen-, baizik eta administrazioko langileen baimen eta lizentziak handitzeari buruzko neurri horiek aplikatzea negoziatio kolektiboan alde sindikalarekin akordioa lortzeak baldintzatzen zuelako, eta hori, bada, ez zen gertatu.

MEDIDAS	EJECUTADAS
1.1. Gizonen berriaz zuzendutako kontzientziazio-kanpainak egitea, pentsamol-dea aldatzeko eta berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako jarrera aktiboa hartzeko.	Bai
1.2. Maskulinitasunari eta eguneroko bizitzari buruzko nazioarteko batzarra antolatzea.	Bai
1.3. Maskulinitasuna Berdintasunerako Foroaren edukietan txertatzea.	Bai
1.4. Berdintasunaren aldeko gizonen taldeentzako eta tailerrentzako diru-laguntzak ematea.	Bai
1.5. Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako euskal gizonen karta egitea, zabalpena ematea eta gizon gehiago hari atxikitzea lortzea.	Bai
1.6. Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako euskal gizonen kartaren edukiak lantzea, eskoletan, gazteen elkarteetan, kirol erakundetan eta gizon gazteez eta umeez arduratzen diren taldeetan	Bai
1.7. www.euskadi.net web gunean gaian berezitutako ataria sortzea.	Bai
1.8. Gizonentzako berriazko sentikortze-programa martxan jartzea.	Bai
1.9. Aitei eskuliburu bat eta sentikortze materialak ematea, beren lehen haurra jaiotzen denean.	Bai
1.10. Ekimenean parte hartzen dutenei eskerrak emateko ekitaldi publikoa antolatzea.	Ez
2.1. Ekintza positiboak aurrera eramatea, HAEEK berdintasunaren esparruan antolatutako ikastaroak gizonentzat eskuragarriago egon daitezen.	Bai
2.2. Ekintza positiboak aurrera eramatea, gizonen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko masterrak eta graduondokoak eskuragarriago izatea sustatzeko.	Bai
2.3. Gizonentzako berriazko trebatze-programa martxan jartzea.	Ez
2.4. Esperientziaren berri ematen duen dokumentua egitea eta zabalpena ematea.	Ez
3.1. Conceder a los trabajadores de la Administración General de la Comunidad Autónoma y de sus organismos autónomos un permiso para asistir a los cursos de preparación al parto que sea compatible con el de la madre.	Ez

MEDIDAS	EJECUTADAS
3.2. Gizonduz ekimeneko sentikortze- eta trebakuntza-programetan parte hartu duten gizonei (Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean edota bere erakunde autonomoetan lan egiten dutenei) aitatasun-baimena hedatzea.	No
3.3. Bi edota lau asteko erditze-baimena hartu duten EAeko Administraziooko langileen baimena astebetetz edo bi astez luzatzea, hurrenez hurren.	No
3.4. Ekimenaren sentikortze- edo trebatze-programetan parte hartu duten gizonei gaixotasun kronikoa edota mugikortasun-arazoak dituzten senideak zaintzeko baimenaren ordu-kreditua hedatzea.	No
3.5. Gainerako erakunde publikoetan eta sektore pribatuan aurreko ataletan aipatutako neurriak ezartzea sustatzea, eta/edo gizonak etxeko lanetan eta zaintza-lanetan erantzukide izatera bideratutako bestelako neurriak.	No

Bestalde, kontuan hartzen baditugu espero ziren neurriak neurtzeko Gizonduzen hasiera batean aurreikusi ziren adierazleak, horiek honela banatzen dira:

7.1. ESPERO ZIREN EMAITZAK GUZTIZ LORTU DIRA EDO GAINDITU ERE EGIN DIRA

- **Berdintasunerako Foroan parte hartzen duten gizonen ehunekoa bikoiztea.** Berdintasunerako Foroa Euskal Autonomia Erkidegoan gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko sentsibilizazio-jarduera gehien biltzen duen ekimena da. 2007an parte hartzaileen % 9 ziren gizonak; 2010ean, berriz, % 22, alegia, espero zen emaitza baino lau puntu gehiago.

- **Berdintasunaren aldeko eta emakumeen indarkeriaren aurkako euskal gizonen Kartari 10.000 gizon atxikitzea lortzea.** 2010eko abenduaren 31an 10.230 sinadura bildu ziren.

- **Berariazko sentsibilizazio-programan 1.000 gizonek parte hartzea lortzea.** Sentsibilizazio eta Prestakuntza Programan 1483 gizonek parte hartu zuten 10 ordu baino gutxiagoko ikastaroetan². Gainera, 1324 emakumek ere egin zituzten ikastaro horiek.

- **Berariazko prestakuntza-programan 100 gizonek parte hartzea lortzea.** Sentsibilizazio eta Prestakuntza Programa indarrean egon zen bitartean (2009ko martxotik 2010eko abendura) 182 gizonek hartu zuten parte 10 ordu baino gehiagoko ikastarotan³. Gainera, 127 emakumek ere parte hartu zuten.

7.2. ESPERO ZIREN EMAITZAK EZ DIRA GUZTIZ LORTU, BAINA HASIERAKO EGOERA NABARMEN HOBETU DA

- **Euskal administrazio publikoetarako lan egiten duten langileen prestakuntzaren esparruan IVAPek antolatzen dituen berdintasunari buruzko prestakuntza ikastaroetan parte hartzen**

². Ebaluazio honetarako, 10 orduetik beherakoak jotzen dira sentsibilizazio ikastarotzat.

³. Ebaluazio honetarako, 10 orduetik gorakoak jotzen dira prestakuntza ikastarotzat.

duen ikasle-kopuruaren ginetik gizonen ehunekoa bikoiztea. 2010eko lehenengo seihilekoari dagozkion datuen arabera, Administrazio Orokorren eta bere organismo autonomoen Berdintasunari Buruzko Prestakuntza Planaren esparruan IVA Pek, Emakunderen laguntzarekin, antolatu dituen ikastarotan parte hartu zuten gizon-kopurua % 23 izan zen. Espero zen % 30eko ehunekoa lortu ez den arren, hasierako egoera nabarmen hobetu da; izan ere, hasierako egoera horretan % 15 baino ez ziren 2006-2007 epealdian Administrazioko langileentzako IVA Pen prestakuntza ikastaroak egiten zituzten gizonak.

- **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean berezitatutako masterretan edo bestelako unibertsitate-graduondokoetan gizonen ikasleei dagokien ehunekoa bikoiztea.** Euskal Herriko Unibertsitateak ematen duen Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko Masterraren eta Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeari buruzko Masterraren 2010eko matrikulazio-datuen arabera, ikasleen % 10 dira gizonak. Hasierako egoerarekin alderatuta (% 8, 2007an) pixka bat igo da kopurua, baina espero zena (% 16) baino txikiagoa da.

- **Berriazko sentsibilizazio-programan 1.000 gizonen parte hartzea lortzea.** Sentsibilizazio eta Prestakuntza Programaren esparruan 570 gizonen parte hartu dute gehienez ere 10 orduko ikastarotan⁴. Aurreikusitako zifra lortu ez zen arren -1.000 espero ziren-, nabarmentzekoa da hain epealdi laburrean (2009ko martxotik abendura) hainbeste gizonen parte hartu izana.

7.3. ESPERO DIREN EMAITZAK, ZEINTZUEN INGURUAN EZ DUGUN INFORMAZIOARIK EKIMENAREN INDARRALDIA AMAITU ONDOREN

- **Etxeko lanetarako eta zaintzarako batez bestean gizonen erabiltzen duten denbora % 20 aragozte.** Txosten hau egin bitartean ez dugu aurkitu 2008az geroko daturik EAEn emakume eta gizonen denborari ematen dioten erabilerari dagokionez. Edonola ere, 2008ko datuek adierazten dutenez ez da egon aldeko bilakaerarik gizonen egiten dituzten etxeko lanei eta zaintzari dagokionez, 2003an egindako neurketako datuen aldean. Hala, etxeko lanei dagokionez, 2008an gizonen egunean ordubete eta 29 minutu eman zituzten horiek egiten eta emakumeek, berriz, 3 ordu eta 33 minutu. 2003an ordubete eta 31 minutu ematen zituzten gizonen etxeko lanak egiten, eta emakumeek, berriz, 3 ordu eta 55 minutu. Bestalde, beste pertsona batzuk zaintzera bidertutako denborari dagokionez, 2008an, gizonen, batez beste, ordubete eta 41 minutu eman zuten horretan eta emakumeek 2 ordu eta 18 minutu. 2003, aldiz, gizonen ordubete eta 22 minutu eman zituzten eta emakumeek ordubete eta 59 minutu.

- **Bikotekidearekin amatasun/aitatasun baimena partekatu duten gizonen ehunekoa bikoiztea.** Txosten hau egin zenean ez genuen 2008az geroko daturik. Urte horretan gizonen % 3,9k partekatu zuten bikotekidearekin amatasun/aitatasun baimena; horrek esan nahi du aurrerapausoa egon dela 2006ko datuen aldera -urte horretan gizon-kopurua % 3,5 izan zen-. Edonola ere, martxoaren 27ko 3/2007 Lege Organikoak aitatasun baimena 15 egunera luzatzeak egoera horretan izan dezakeen eragina aintzat hartu behar dugu..

- **Eusko Jaurlaritzak pertsonak zaintzearren lanaldia murrizteko eta eszedentzia hartzeko emandako laguntzen onuradunen artean gizonen dagokien ehunekoa % 10era igotzea.** Txosten hau egin zenean ez genuen 2010ari dagokion daturik. Hala ere, 2009ari dagozkion datuek ez dute aldeko bilakaerarik agertzen 2006ko datuen aldean; izan ere, laguntzen onuradunen artean gizonen dagokien ehunekoa % 6an mantentzen.

⁴. Ebaluazio honetarako, 10 orduko beharokoak jotzen dira sentsibilizazio ikastarotzat.

Gizonduzen espero ziren emaitzak neurtzeko aurreikusi ziren adierazleen bilakaerari buruzko laburpena jasotzen du ondorengo taula honek.

ESPERO ZIREN EMAITZEN FORMULAZIOA	HASIERAKO EGOERA ZIFRETAN	ESPERO ZEN EMAITZA ZIFRETAN	LORTUTAKO EMAITZA ZIFRETAN
Berdintasunerako Foroan parte hartzen duten gizonen ehunekoa bikoiztea.	9%	18%	22%
Berdintasunaren aldeko eta emakumeen indarkeriaren aurkako euskal gizonen Kartari 10.000 gizon atxikitzea lortzea.	0	10.000	10.230
Berariazko sentsibilizazio-programan 1.000 gizonek parte hartzea lortzea.	0	1.000 gizon	1.483 gizon 1.324 emakume
Euskal administrazio publikoetarako lan egiten duten langileen prestakuntzaren esparruan IVAPek antolatzen dituen berdintasunari buruzko prestakuntza ikastaroetan parte hartzen duen ikasle-kopuruaren gainetik gizonen ehunekoa bikoiztea.	15%	30%	23%
Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean berezitutako masterretan edo bestelako unibertsitate-graduondokoetan gizonezko ikasleei dagokien ehunekoa bikoiztea.	8%	16%	10%
Berariazko prestakuntza-programan 100 gizonek parte hartzea lortzea.	0	100 gizon	182 gizon 127 emakume
Gizonek etxeko lanei eta zaintza-lanei eskainitako denbora % 20 handitzea.	Ordubete eta 32 minutu (etxeko lanak) Ordubete eta 22 minutu (pertsonek zaintza)	Ordubete eta 29 minutu (etxeko lanak) Ordubete eta 41 minutu (pertsonek zaintza)	2008tik aurrera ez du informaziorik
Bikotekidearekin amatasun/aitatasun baimena partekatu duten gizonen ehunekoa bikoiztea.	3,5%	7%	2008tik aurrera ez du informaziorik
Eusko Jaurlaritzak pertsonak zaintzearen lanaldia murrizteko eta eszedentzia hartzeko emandako laguntzen onuradunen artean gizonei dagokien ehunekoa % 10era igotzea.	6,1%	12,2%	2009tik aurrera ez du informaziorik

Beraz, neurrien gauzatze-maila altua eta espero ziren emaitzak neurtzeko hasieran aurreikusi ziren adierazle gehienen aldeko bilakaera ikusirik, Gizonduz ekimenaren lehen urteetako ibilbidea positiboa dela esan daiteke. Gainera, gaztea den arren, berdintasunaren alde gizonen inplikazioaren aldeko lanean oinarritzko erreferente bihurtu da Gizonduz, hala gure erkidegoko nola kanpoko pertsona eta erakunde publiko zein pribatu askorentzat.

Lan honekin guztiarekin gure erkidegoan berdintasunaren alde maskulinitate eredu tradizionala zalantzan jartzen duen eta eredu berdintasunezkoagoen alde egiten duen gizonen masa kritikoa osatu nahi dugu, beste gizonentzat, eta batez ere hurrengo belaunaldientzat erreferente izango dena. Era horretan, etorkizun hurbilean Euskal Erkidego Autonomoa Estatuan eta nazioarte mailan erreferente izan dadin nahi dugu gizonek etxeko lanei eta zaintzari eskainitako ordu kopuruari dagokionean, baita ere berdintasunaren alde jendaurrean konprometitu diren eta gai honekin lotutako sentsibilizazio eta prestakuntza kanpainetan parte hartu duten gizon kopuruari dagokionean.